



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroak 24**

**Vitoria-Gasteiz, 24 de noviembre de 2020**

## Lehendakaritza

### **AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA”**

Azaroaren 25a "Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna" dela eta, Eusko Jaurlaritzak gaitzespen irmoa azaldu nahi du indarkeria sexistaren adierazpen guztien aurrean, eta honekin batera, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte baterantz lanean jarraitzeko bere konpromisoa adierazi nahi du, une honetan bereziki kontuan hartuta COVID19ak sortutako krisia eta haren ondorioak.

Krisiaren hasieratik, Jaurlaritza honentzat lehentasuna izan da emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuetarako arreta-zerbitzuak funtzionamenduan mantentzea eta errealitate berrira egokitzea, bai eta biktima guztiek zerbitzu horiek eskuratzeko aukera izatea, haien aniztasuna kontuan hartuta. Baina, horrez gain, konpromisoa hartu du pandemiari eman beharreko erantzunean genero-ikuspegia modu integralean txertatzeko; izan ere, osasunean, ekonomian eta gizartean orohar eragina duen krisi honek guztioi eragiten badigu ere, modu ezberdinean egiten du: eta horren adierazleetako bat da emakumeen aurkako indarkeria, pandemia-garaietan emakume askoren zaugarritasun maila handitu baitu, behartuta egon baitira beraien erasotzailearekin konfinatuta edo ordu gehiago egotera.

Emakumeen aurkako egiturazko indarkeriak erronka handia dakar, eta Jaurlaritzak berretsi egiten du erronka honi erantzun egokia emateko duen erantzukizuna etengabeko hobekuntzan duen konpromisoaren bitartez. Konpromiso hori modu ezberdinetan islatzen da: Berdintasunerako euskal legea aldatzeko onartutako proposamen berrian, lehen aldiz Jaurlaritzaren barruan Berdintasun Sail bat sortzeko hartutako erabakian, edota sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioaren eta aurrekontuen indartzean ere.

Halaber, dei egiten diogu gizarte osoari adi egon dadin emakumeen aurkako indarkeria-adierazpen mota guztiak antzeman ahal izateko. Emakunderen kanpainak dion bezala, adi dagoen gizarte batek bakarrik antzeman dezake indarkeria, batez ere ezkutuen. Horregatik, emakumeen aurkako indarkeria gaitzestera animatzen ditugu herritarrak, indarkeria honen aurkako sinboloa den puntu lila erabiliz, edo egokitzen jotzen duten beste moduren batean, betiere osasun-egoera eta protokoloak kontuan hartuta.

Azkenik, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu gogoraraztea emakumeen aurkako indarkeriaren erroa emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza dela, eta, beraz, ezinbestekoa dela berdintasunean lan egiten jarraitzea emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte eraiki ahal izateko.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **GOBERNU KONTSEILUAK ONTZAT EMAN DU EHUREKIN SINATUTAKO HITZARMENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO PROFESIONALEI BERDINTASUNARI ETA INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran erabaki du baimena ematea UPV/EHurekin hitzarmen bat sinatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) kudeaketa-agindua formalizatzeko, berdintasunerako eta indarkeria matxistarako prestakuntzaren esparruan, bai eta haur eta nerabeei sexu-abusuak aurreikusteko eta haiei arreta emateko ere. Euskal Administrazio Publikoko profesionalen prestakuntza-plana da, 2020ko Aurrekontuen Legean jasoa, eta hitzarmen honen bidez unibertsitatera eramaten da, diseina eta gauza dezan.

Prestakuntza-plana bi prestakuntza-ekintza, ikaskuntza-ekintza eta informazio-ekintza motarekin zabaltzen da, bi mailatan mailakatuta: oinarrizkoa eta sakontzekoa. Besteak beste, hezkidetzari, emakumeen aurkako indarkeriari eta indarkeria matxistaren egoeretan esku hartzeari buruzko online ikastaroak eskainiko dituzte. Halaber, jarduera-gida bat landuko dute, Hezkuntzan, Osasunean, Justizian, Segurtasunean eta Gizarte Zerbitzuetan indarkeria matxistaren kasuak hobeto antzemateko, artatzeko eta esku hartzeko.

Prestakuntza plan honek honako lanbide-eremu hauek ditu xede: Osasuna, Hezkuntza, Justizia, Gizarte Zerbitzuak eta Segurtasuna, eta EAEko Administrazio Orokorrean eta Instituzionalean, Foru Administrazioan eta Toki Administrazioan lan egiten duten profesionali eragiten die. Ikastaroak urte honen amaieran eta 2021aren amaieran egingo dira.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKO JAURLARITZAK 9,5 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO FINANTZA LAGUNTZA BERRIAK GAITU DITU MAHASTIZAINZAREN ETA ARDOGINTZAREN SEKTORERAKO**

- Aurtan, 20 milioi eurotik gorakoak dira mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorerako bideratutako sustapen eta inbertsio laguntzak
- 2017tik, 132 enpresa izan dira Ardoaren OCMn ardoaren sustapenerako aurreikusitako laguntzen onuradun, eta 72 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak egin dituzte
- 2015etik, 100 enpresak baliatu dituzte Ardoaren OCMk inbertsioetarako ematen dituen laguntzak, eta 25 milioi euroko diru laguntzak jaso dituzte.

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak proposatuta, ardogintzako produktuak hirugarren herrialdeetan ezagutarazteko eta sustatzeko 2021eko maiatzaren 1etik 2022ko apirilaren 30era arte garatuko diren ekintza eta programetarako laguntzak –9 milioi euro, kalkuluen arabera– iragartzen duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak, bere azken Kontseilu bileran. Halaber, onartu du 635.000 euro gehiago bideratzea 2020ko ekitaldiko ohiko deialdian erantzunik izan ez duten mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko inbertsio proiektuetarako laguntzetara.

### **ARDOAREN OCM-REN SUSTAPEN PROGRAMA**

Programa honen helburua da egungo egoera bideratzea euskal mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen lehiakortasuna areagotzeko eta beraien ardoek kanpoan kokapen sendoagoa eduki dezaten. Itzuli beharrik gabeko laguntza zuzenak dira ardogintzako enpresentzat, ahalegin ekonomiko handia egiten baitute sustapenean, ekitaldi honetan COVID-19 pandemiak nabarmen kaltetu dituen arren.

Munduko osasun larrialdiak eragindako egoera zailari aurre egiteko, Ardoaren OCMren 2020-2021 aldirako sustapen programa hori bera, gaur egun gauzatzen ari dena, % 60ko aparteko laguntza izan du, eta 8,3 milioi euroko dirulaguntza aurreikusi zenetik 12,3 milioira igo da.

### **Eskarien aurreikuspena**

Era berean, 2021-2022 aldirako orain iragartzen den programa berri honetarako laguntzak 2021eko urtarrilean eskatuko dira, 2021eko maiatzetik 2022ko apirilera bitartean gauzatzeko. Aurreikusitako laguntzen zenbatekoa aurreko ekitaldietakoen antzekoa izango da, 9 milioi eurokoa, eta 15 milioi euroko kanpo sustapeneko jarduerak sortuko dituzte.

Ardoaren OCMn ardoaren sustapenerako aurreikusitako laguntzek 132 enpresari egin diete mesede 2017tik, eta enpresa horiek 72 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak egin dituzte.

Orain onartzen diren dirulaguntzak hirugarren herrialdeean produktu hauek ezagutarazteko eta sustatzeko jardueretara bideratuta daude: ardoak, likore ardoak, ardo apardunak, kalitateko ardo apardunak, kalitateko ardo apardun aromatikoa, ardo txinpartaduna, ardo txinpartadun gasdunak, mahaspasa bihurtutako mahatsen ardoak, gehiegi heldutako mahatsen ardoak, eta ekoizpen ekologikotik datozen ardoak.

### **Eskabideen aurkezpena**

Ardogintzako produktuak hirugarren herrialdeetan ezagutarazteko eta sustatzeko ekintza eta programetarako laguntzak eskatzeko agiriak aurkezteko epea Aingua argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da, eta 2010ko urtarrilaren 15ean bukatuko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoa sartuta aurkeztuko dira.

- <http://www.euskadi.eus/servicios/>
- <http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/>

### **ARDOAREN OCM-REN INBERTSIO PROGRAMA**

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du 635.000 euro gehiago bideratzea mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean 2020ko ekitaldiko ohiko deialdian erantzunik eduki ez duten inbertsio proiektuetarako laguntzetara. Ardoaren OCMren 2020ko inbertsio programari bideratutako 7,5 milioi euroei gehitu behar zaie kopuru hori.

2015etik, 100 enpresak baino gehiagok baliatu dituzte laguntza horiek, 25 milioi euro eskuratuta.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari zuzenduko zaizkio. Eskabideak euskadi.eus egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira.

- <http://www.euskadi.eus/servicios/>

Laguntza finantzario horiek guztiak dira **Eusko Jaurlaritzak edarien sektoreari laguntzeko abiarazitako ekimenetako bat**, tartean direla, besteak beste, sektorearen lehiakortasuna areagotzeko ekimena, posizionamendurako eta salmentarako ekintzak indartzekoa eta Euskadiko upategi eta ardoak sustatzeko ekintza berriak martxan jartzekoa, ARDOA Basque Winne Officek koordinatuta.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKO JAURLARITZAK BI MILIOI EUROAN AREAGOTU DITU COVID-19-AREN ONDORIOZ KRISIAN DAUDEN ENPRESENTZAKO BIDERATU LAGUNTZAK**

- **Hasieran 20 milioi euro bideratu ziren; orain, 22.067.704 euro bideratuko ditu**
- **Dagoeneko, 17,8 milioi euro eman zaizkie 32 enpresari**
- **Deialdi honetarako baliabide ekonomikoak pandemiaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko gaitutako funtsetatik datoz**

Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak eskatuta, Gobernu Kontseiluak Bideratu programara beste bi milioi euro bideratzea onetsi du; 2020ko apirilaren 3ko Aginduak jasotzen duenaren arabera, 20 milioi euro bideratu behar ziren programara, covid-19-ak eragindako inpaktu ekonomikoaren ondorioz krisian dauden enpresak berregituratu eta berriz sustatzeko.

Honako enpresa txiki eta ertain (ETE) hauek izan daitezke Bideratu programaren onuradun: erauzketa-industriakoak, eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoei lotutako zerbitzu teknikoetakoak (produktu-prozesuari lotuta) eta informazioaren eta komunikazioaren gizartearen eremukoak, eta covid-19-ak eragindako inpaktu ekonomikoaren ondorioz krisian daudenak.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 30eko 15:00etan amaituko da. Hasieran esleitutako 20 milioi euroetatik 17,8 milioi eman zaizkie, dagoeneko, 32 enpresari.

Era berean, hiru espediente daude analisi-fasean; haiek onestekotan, aurrekontua agortuko lukete. Hori dela eta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak aurrekontu-partida handitzeko beharra ikusi du.

### **Bideratu, programa berezia eta Europar Batasunak bermatua**

Pasa den udaberrian, Euskadik Covid 19-aren ondorioz bizi duen ekonomia- eta industria-krisi larriaren hasieraren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzak premiazko programa berria gaitu zuen, industrialari baino ez, euskal ekonomiaren eragilea indartu eta etorkizunera begira berrindustrializazio-fase berria abiarazteko.

COVID19-a industrian eragiten ari zen salbuespenezko egoeraren aurrean, Europako Batzordeak aurretik, martxoaren 19an, "Covid-19-aren krisia dela eta Ekonomia bultzatzeko Laguntzei buruzko Aldi Baterako Esparrua" onetsi zuen, eta hark araudi-esparru berria ireki zuen, industriako ETEak erreskatatu ahal izateko.

Berme horrekin, Eusko Jaurlaritzak krisian zeuden ETEentzako laguntza-lerroa ireki zuen; hura bi milioi euroan handitu da, eta, ondorioz, guztira, 22 milioi ditu. Kopuru horren bidez, covid-19-aren pandemia euskal ekonomian eragiten ari den ondorio negatiboak arindu nahi dira.

## Hezkuntza

### **HEZKUNTZA SAILAK 36,6 MILIOI EURO BIDERATU DITU COVID-19ren AURKAKO NEURRIEK ITUNPEKO IKASTETXEETAN ERAGINDAKO GASTU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, zuzeneko dirulaguntzak ematea hezkuntza-ituna indarrean duten ikastetxeei, Covid-19ren aurkako prebentzio-protokoloek eskatzen dituzten neurriak aplikatzearen ondoriozko gastu gehigarriak finantzatzeko. Gastu gehigarri horiek ordaintzeko erabiliko den diru-kopurua 36.689.760,82 eurokoa da.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke 2020-2021 ikasturtean Euskadin honako irakaskuntza arautu hauetakoren bat itunduta duten ikastetxeak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa edo Lanbide Heziketa.

Ezohiko diru-laguntza hauek honako gastu-mota hauek finantzatzeko emango dira:

- Langile berriak kontratatzea edo lehendik daudenei ordu kopurua gehitzea
- Irakasleen ordezkapenak
- Garbiketa gastuak
- Material informatikoa erostea edo alokatzea

Irakasle berriak eta irakasle ez diren langileak kontratatzeko zenbatekoa zehazteko, kontuan izan dira, ikastetxe bakoitzaren gela eta ikasle kopurua, eta baita ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea ere. Indize hau osatzeko hainbat adierazle hartu da aintzat, besteak beste, ikaskuntzaren emaitzak, hezkuntza-laguntzarako beharrak, egokitasuna, ikasleek ikastetxean duten jarraikortasuna eta maila sozioekonomikoa.

Material informatikoa erosi edo alokatzeko laguntzetarako, diru zenbateko bat ezarri da, ikastetxe bakoitzean Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan eta DBHko maila guztietan (DBH-ko 1. mailatik 4.era) eskolatutako ikasle bakoitzeko. Garbiketari eta irakasleen ordezkapenei dagokienez, hezkuntza-itunean emandako moduluen igoerak ezarri dira: %20-ko igoera garbiketarako, eta %40-koa ordezkapenentarako.

Dirulaguntza hauen helburu diren gastuak 2020ko irailaren 1a eta 2021eko ekainaren 30a bitartean egin beharko dira, eta soil-soilik Covid-19ren aurkako prebentzio-protokoloak betetzeko neurriek hala eskatzen dutelako eginiko gastuak izan beharko dira.

Eskabideak eta egiaztagiria aurkezteko epea hilabetekoa izango da, erabakia onartzen denetik hasita. 2020-2021 ikasturte honetan, Euskadin 314 itunpeko ikastetxe daude laguntza hauen onuradun izan daitezkeenak.



## Hezkuntza

### **1,8 MILIOI EURO, UNIBERTSITATE IKASLEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMATARAKO**

- **2019-2020 ikasturtean 2.144 ikaslek jaso zuten Euskadin nazioarte mailako mugikortasuneko dirulaguntza**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du 2020-2021 ikasturtean unibertsitate ikasleen nazioarteko mugikortasun programak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateentzako eta goi-mailako arte eta kirol irakaskuntzen ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia egiten duen agindua. Dirulaguntza deialdi honek 1.850.000 euroko zenbatekoa du.

Europako Batasunak Erasmus+ programako mugikortasunetarako egiten dituen diru-ekarpenenekin ez da kostuen %100 finantzatzen; beraz, finantzaketa zabaltzea beharrezko gertatzen da deialdi honen bidez. Era berean, unibertsitate-mugikortasunen parte bat Erasmus+ programan sartuta ez dauden destinoetara egiten da; horrela bada, horiek ez dituzte Europako erakundeek laguntzak jasotzen, eta, beraz, beste mugikortasun-programa horietan parte hartzen duten pertsonak finantzatu beharra ere agerian geratzen da.

Nazioarteko mugikortasunak goi-mailako ikasleen formaziorako duen garrantziaz ohartuta, Hezkuntza Sailak aipaturako marko hori zabaltzen du, deialdi honen bidez. Erasmus+ programara eta nazioarteko izaera duten bestelako mugikortasun-programetara atxikitako pertsonen mugikortasunen finantzazioa hobetzea da azken helburua.

Deialdi honek jasotzen duen diru-kopuru osoa (1.850.000€), beraz, era honetan banatua gelditzen da:

- 610.500 euro, SEPIE estatu erakundeak (Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua) emandako laguntzak osatzeko
- 1.239.500 euro, estatuko erakunde horren laguntzarik gabe egiten diren egonaldietarako

Dirulaguntza horiek eskatuko dituzten erakundeak, ikasturte honetarako nazioarteko mugikortasun-programak dituzten unibertsitateak edo goi-mailako arte eta kirol irakaskuntzen ikastetxeak izango dira; dirulaguntzen azken onuradunak, berriz, mugikortasun-programa horietan parte hartzen duten ikasleak – EAEko udalerriren batean administrazio-egoitza dutenak –. Ikasle horiek graduko unibertsitate-titulu ofiziala edo unibertsitate-masterra lortzeko ikasketak egiten, zein goi-mailako arte edo kirol irakaskuntzak burutzen egon beharko dute 2020-2021 ikasturtean.

COVIDak atzerriko egonaldietan eragina izan dezakeenez, ikasturte honetarako Aginduan jaso da COVID-19k egonaldietan eragindako aldaketak ez direla hartuko ez-betetzetzat.

Joan den 2019-2020 ikasturtean 2.144 ikaslek jaso zuten nazioarte mailako mugikortasuneko dirulaguntza Euskadin, deialdi honen bidez.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### EUSKO JAURLARITZAK GAZTERIAREN LEGE-PROIEKTUA ONETSI DU

Gobernu Kontseiluak, gaur, gazteriaren euskal legearen proiektua onetsi du; haren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gazteria-politikak garatzeko araudi- eta eskumen-esparrua ezartzea.

Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak “une historiko” hori baloratu du; izan ere, EAEk ez du gazteria-legerik. “Gazteriaren euskal legeak modu egonkorrean eta bermatzailean erakutsiko ditu Eusko Jaurlaritzako sailak, hiru foru-aldundiak eta EUDEL eta gazte-erakundeak eta gazteak eurak ekintza positiboko zein neurritan dauden inplikaturata”, esan du.

2008ko irailean, lehendabizi, eta 2011ko urrian, ondoren, Gobernu Kontseiluak bi lege-proiektu onetsi zituen, baina horiek ez zuten gainditu Legebiltzarreko hurrengo izapidea. Aurtengo otsailean, lege-proiektua onetsi zen, baina legegintzaldiaren amaierak hura izapidetzea eragotzi zuen. Orain, Artolazabalek “hura onetsi ahal izateko adostasun azkarra lortzera” gonbidatu ditu alderdi politikoak.

“Gobernu honentzat, gazteria gure kapital sozial onena da, eta konpromisoa hartu dugu baterako politika koordinatua sustatzeko, euskal gazteriari zeharkako ekintza eskainiko diona, haien emantzipazioari eta familia-proiektua garatzeari bide emango diona”, esan du Artolazabalek. Zehazki, lege honen helburuetako bat da gazte-ikuspegia euskal politika publikoetan sartzea.

Gazteriaren euskal legearen proiektuaren eduki nagusiak honela laburtu daitezke: euskal administrazio publikoek gazteriaren arloan dituzten eskumen eta eskuduntzak arautzea; administrazio publikoan gazte-emantzipazioa eta gazte-ikuspegia sustatzea; gazteriaren zeharkako politikak koordinatu, planifikatu eta ebaluatzea; gazte-izaera sustatzea gazteen programa, jarduera, zerbitzu eta ekipamendu berezien bidez, eta gazte-partaidetza sustatzea, bai eta zehapen-araubidea ere.

“Tresna horrek sendotuko du, gehien, euskal agente politikoek gazteriaren politika integralekin duten konpromisoa”, esan du Berdintasuneko sailburuak. “Legeak egonkortasuna emango dio denborak baliozkotutako eta erakundeek sustatutako lan-moduari”. Arauak finkatu egingo du urteetan gazterian eragin zuzena duten politika sektorialen koordinazioan eginiko lana.

### 12 eta 30 urte bitartean

Lege-proiektu horrek «gazte» izendatzen du 12 eta 30 urte bitarteko pertsona oro. Artolazabalek esan bezala, hala egiten du, “gazteekiko esku-hartzeak gero eta adin goiztiaragoetan gertatzen ari direlako”.

Hala ere, Gazteria Politika gauzatzeko garrantzitsuena da helburu den publikoa gazteriaren euskal legea egituratzen den eremu handien arabera segmentatu ahal izatea. Hala, gazte-sustapenaren eremuan, gaztetzat jotzen da 12 eta 30 urte bitarteko pertsona oro, biak barne; horrek esan nahi du nerabezarotik etengabeko arreta jartzen dela, oro har aplikatzen den bezala, batik bat euskal udalerrietan.

Gazte-emantzipazioaren politikak direla eta, berriz, gaztetzat jotzen dira 18 eta 30 urte bitarteko pertsonak, biak barne; hala ere, zenbait programak eta jarduketak beste adin-muga batzuk aurreikusten dituzte, haien izaera eta helburuak aintzat hartuta.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **GOBERNUAK 145.000 EURO BIDERATU DITU GAZTE-MUGIKORTASUNERAKO EDO -TRUKERAKO JARDUERAK SUSTATZERA**

Gobernu Kontseiluak balioetsi egin du 2021ean gazte-mugikortasunerako edo trukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko arauketa ezartzen duen agindua. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 145.000 euro bideratuko ditu datorren urtean.

Laguntza horien helburua gazte-mugikortasuna sustatzea da. Mugikortasun-jarduerak sustatzen dituzten trebetasun, gaitasun eta ahalmenak eskuratuz gazteak gizartearen integra daitezen sustatzeko tresna bat da.

Honako jarduera hauek jaso dezakete laguntza:

- Gazte-mugikortasunerako edo trukerako jarduerak, Europar Batasuneko beste estatu edo eskualde kide batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko.
- Gazte-mugikortasunarekin edo -trukearekin zerikusia duen sustapenerako, zabalkunderako edo prestakuntzarako lurraldez gaindiko eremuko jarduerak.

2020ko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak dirulaguntzarako 25 eskabide erregistratu zituen. Haietatik, 20 zenbait jarduera egiteko eman zitezten proposatu ziren, besteak beste honako hauek: “Biowet (Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik), “Europar Euskadiko gazteen ahalmena mobilizatzea” (KAEBNAIren eskutik) edo “Alemaniarako bidalketa- eta harrera-trukea sare sozialen erabilera masiboa aztertzeke” (Kilimiliklik-en eskutik).

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **GOBERNU KONTSEILUAK BESTE 250.000 EUROKO LAGUNTZA ONARTUTA HABEK 22,4 MILIOI EURO IZANGO DITU EUSKALTEGI PRIBATUAK DIRUZ LAGUNTZEKO**

- **Diru partida berriari esker euskaltegiek ia 5.000 talde-ordu gehiago eskaini ahal izango dituzte eta autoikaskuntzan ia 800 ikasle gehiago egongo dira**

Gaurko Gobernu Kontseiluak Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari (HABE) Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko 250.000 euro gehiagoko diru laguntza bat baimendu dio. Horrela, HABEk, guztira 22,4 milioi eurotako diru-laguntza izango du 2020-2021 aldirako.

Covid-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko osasun eta segurtasun neurri bereziak hartu behar izan dituzte euskaltegiek. Besteak beste ikasgeletako edukiera murriztu behar izan da eta zentroek talde gehiago sortu behar izan dituzte. Horrez gain autoikaskuntzaren eredian ere ikasle gehiago matrikulatu dira. Egoera bi horietan euskaltegiei laguntza emateko asmoz onartu du gaur Gobernu Kontseiluak 2020-2021 ikasturteko euskara-ikastaroengatik euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako diru laguntzetarako kreditua gehitzea.

Orain arte 26.500 ikasle eta 1.400 irakasle batzen dituzten 56 euskaltegi eta 6 autoikaskuntza zentro laguntzen ziran diruz. Gaur onartutako aldaketarekin beste 4.421 talde-ordu gehiago lagunduko dira 2020-21 ikasturtean eta 797 ikasle gehiagok ikasi ahal izango dute euskara autoikaskuntza sistemaren bidez.

HABEk bideratzen dituen diru laguntzei esker euskaltegiek berain eguneroko gastuei aurre egiteko aukera dute, besteak beste:

- Langileen gastuak (soldatak, eta Gizarte Segurantzako gastuak eta Ogasuneko atxikipeak)
- Lokalen alokairuak
- Mantenu-gastuak barnetegi iraunkorretan
- Garbiketa-gastuak
- Gastu didaktikoak
- Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko helburuarekin sortutako beste edozein gastu

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENA EMAN DU EUSKADI DC NETWORK IZENKO SORKUNTZA BARRUTIEN NAZIOARTEKO SAREARI ATXIKITZEKO

- **Sarea mundu osoko 13 eskualdek osatzen dute, eta ezagutza, teknologia eta baliabideak konbinatzeko modu berriak identifikatzea du helburu**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, [Internacional Districts of Creativity \(DC\) Network](#) izeneko sareari atxikitzea onartu du gaur.

Nazioarteko foro horrek mundu osoko 13 eskualde biltzen ditu, eta haien lehenasunezko agendaren barruan, sormena eta berrikuntza daude. Sareak mundu osoko eta hainbat arlotako pertsonak bildu nahi ditu, pentsamendu sortzailearen ahalmena sustatu eta erabiltzeko eta ezagutza, teknologia eta baliabideak konbinatzeko modu berriak identifikatzeko helburua du. International Districts of Creativity (DC) Network sarea osatzen duten eskualdeen ikuspegitik, sorkuntza-industriak etorkizuneko funtsezko sektoreetako bat dira.

International Districts of Creativity (DC) Network sarearen jardueren artean, honako hauek aipa daitezke:

- 1.500 pertsona biltzen dituen Sormenaren Munduko Foroa, diziplina anitzeko berrikuntzari buruzko gogoeta egiteko.
- “Alderantzizko misioak” egitea; DC Networkeko kide batek norbere barrutiko sormenaren, ekintzailetzaren eta berrikuntzaren esparruko bisitaldia antolatzen du, eta DCko gainerako kideek ikerketa-bisita baten bitartez barruti horretako kideekin harremanak sendotu eta elkarlanerako proiektuak aztertzen dituzte.
- Sormenari, berrikuntzari eta ekintzailetzari buruzko nazioarteko tailerrak ikasleentzat.

## Presidencia

### **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE “DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES”**

Con motivo del 25 de noviembre, “Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres”, el Gobierno Vasco expresa su firme repulsa ante todas las expresiones de violencia sexista y muestra su compromiso firme de seguir trabajando para avanzar hacia una sociedad libre de violencia contra las mujeres, especialmente teniendo en cuenta la crisis generada por la COVID19 y sus consecuencias.

Desde el inicio de la crisis este Gobierno ha priorizado mantener en funcionamiento y adaptar a la nueva realidad los servicios de atención para los casos de violencia machista contra las mujeres y el acceso a dichos servicios de todas las víctimas considerando su diversidad. Pero, además, está comprometido con la incorporación de la perspectiva de género de forma integral en la respuesta a la pandemia, ya que la crisis sanitaria, económica y social está afectando a todo el mundo, pero no nos está afectando a todos y todas por igual: una de las expresiones de esta desigualdad es la violencia contra las mujeres, que en época de pandemia ha incrementado el grado de vulnerabilidad de muchas mujeres que se han visto obligadas a estar confinadas o a pasar más horas al día con su agresor.

El Gobierno reafirma su compromiso en la mejora continua para dar una respuesta adecuada al enorme desafío que supone la violencia estructural contra las mujeres, un compromiso reflejado en la nueva propuesta de modificación de la ley vasca para la igualdad, en la creación por primera vez en la historia de un departamento de Igualdad en el seno del Gobierno, en la coordinación interdepartamental e interinstitucional y en el refuerzo presupuestario para hacer frente a este desafío.

Asimismo, hacemos un llamamiento a toda la sociedad para que esté atenta y poder así detectar todo tipo de expresión de violencia contra las mujeres. Tal y como reza la campaña de Emakunde, solo una sociedad atenta, puede detectar esta violencia, sobre todo la más oculta, por lo que la animamos a que muestra su rechazo a la violencia contra las mujeres haciendo uso del punto lila, símbolo de la actitud de rechazo a la violencia contra las mujeres, o de otra manera que considere oportuna teniendo siempre en cuenta la situación sanitaria y sus protocolos.

Finalmente, consideramos absolutamente necesario recordar que la raíz de la que nace la violencia contra las mujeres es la desigualdad de mujeres y hombres, y, que, por tanto, es indispensable seguir trabajando en igualdad para poder construir una sociedad libre de violencia contra las mujeres.



## Gobernanza Pública y Autogobierno

